



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2020ko ekaina · 365 alea

AURTEN KULTURALDIA





PIL-PILEAN 365

2020ko ekaina

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Eduardo Zubiaurre
- 6 **Begira** Ondare industrialia
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 **Argazki bidez** Errigora
- 18 **Erreportajea** Udai-aurrekontu aldaketa
- 22 **Kirola** Pilota txapelketa
- 23 **Kultura** Kulturaldia
- 29 **Gure artistak** Lorea de Castro
- 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA

- 3 **Neuretik** Iñaki Amuategi
Txertuan zain
- 16 **Gutunak** Niko Morillo eta Zaintza Sarea
- 16 **Hausnarketa** Oporrak
- 17 **Zir(r)ika** Jaixak
- 17 **Puntua** Maite Garmendia
Sare sozialak



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea

Miren Gallastegi

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa

Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.

Banaketa:

Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Txertuan zain?



IÑAKI AMUATEGI BASAURI

Ezagutuko dozuen txinatar esaera zahar batek diñuan moduan; ergela, igetargixari begiratu biharrian, gaztai ederra seinalatzen daben atzamarrari begira geratzen ei da.

Barrixa ez izan arren, gaur egungo testuingururako gogora ekarri biharrekua pentsau jata Konfuzioren esana.

Konturatu orduko hortxe genduan; etxeko atarixan, eskolako patixuan eta herriko plazan, jaun ta jabe bera! Birus ikusezin batek gure bizitzak aldatu eta une batez hankaz gora jarri dau bizitza kapitalan aurretik (edo alderantziz da?) jartzen daben sistema handiuste hau.

Zeinek esan 2020ko hasieran Euskal Herriko biztanle kopurua hirukoizten daben Txinako hiri, askondako ezezaguna, zan batetik sortutako gaitza, meteoritua legez, gurian izango genduanik? Alarma egoeratik atara barrixak garan arren, ezin dogu ahaztu munduko bazter askotan triskantza izugarriak diharduala egitten ondiok.

Osasun kontu hutsa balitz bezala, birusak, “ez dau mugez ulertzen”, sasi-argudioarekin azaldu deskue, “de facto” 155a aplikatzia eta alarma egoeria ezartzia espainiar Estatu guzti ahaldunaren erabaki eskusibua dala. Birusak ez dittu mugak errespetatzen, bikain Sanchez! Baina Hendaia, Biriatu, Dantxarinea, Andorra, La Seu d’Urgell, La Jonquera... Horrek bai, horrek errespetatzen dittu COVID-19ak!

Agintzen deskun atzamarrari begira geratuz gero, etorkizun liberrik ez dau izango herri honek. Igetargixa, aldakorra eta sarritan ezkutuan egoten dan arren, zorionez, ez da iñona eta danok disfrutau geinke hari begira.

Igetargixa moduan, gure herrixari, Euskal Herrixari, eragiten detsen arazo nagusixeri aurre egitteko erabakitze eskubidia be ez da iñona. Guztiona da! Etorkizun hobia eraikitzeo eskuratu biharreko erremintta: danona eta danontzat, edozein gatazkari aurre egitteko oinarri-oinarrizko tresna demokratikua.

Aurrerantzia, maskariakin ibili biharko bagara be, ezin gara itsu, mutu eta gor geratu. Txertuan bila ez dogu inora juan biharrik, gu geu gara txertua eta! Eta bide horretan zure ekarpena egin zeinke hamen sinatuta: <https://hamaikagara.eus/>.

**AURRERANTZIAN
MASKARIAKIN IBILI
BIHARKO BAGARA BE,
EZIN GARA ITSU, MUTU
ETA GOR GERATU**

“Ekintzailtza erakartzeko eskualdea itxuratu beharra dago”

EDUARDO ZUBIAURRE CONFEBASKEKO ETA BPTD ENPRESA ELKARTEKO PRESIDENTEA

TESTUA UBANE MADERA
ARGAZKIA FOKU

Debabarreneko alkateek eta BPTD Enpresa Elkarteko ordezkariak eskualdeko industriaren aldeko ituna sinatu berri dute. Sinatze-ekitaldian izan zen Eduardo Zubiaurre (Eibar, 1962). Itunak enpresa-sare lehiakorra eta jasangarria sustatzen duen eskualdea sortzea du helburu, lankidetzat publiko-pribatuarekin eta eskualdearen industriarako bokazioa oinarri.

Bideragarria da eskualdearen etorkizun industrialak? Eskualdean eta inguruan, guk distritua deitzen diogun eremu honetan, baditugu indarguneak, enpresa lehiakorak, teknologiarekin lotutako enpresa asko eta indartsuak, makina-erremintarekin, elektronikarekin, mekatronikarekin, robotikarekin... lotutakoak. Baina etorkizuna edukitzeko, hori guztia indartu, prestatu eta datozen erronketara egokitu behar dugu. Zentzu horretan, ikusten dugu distritu edo eskualde bezala indarra galtzen ari ginelako hiriguneekin alderatuta, batik bat, Bilbo eta Donostia inguruekin. Kasu horretan, EAEren erdigunean egotea indargunea izan badaiteke ere, ahultasun bilakatu daiteke. Gure kasuan, galera nabarikoak dugu formatutako pertsonen kontratazioan eta inbertsio berrien, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren proiektuen eta unibertsitate gehienek (Mondragon Unibertsitatea izan ezik) kokapenean. Hori ikusita eta eskualdeko datu sozioekonomikoak aintzat hartuta sortu zen gure ardura; halaber, hortik sortu zen gure (enpresarien) ekimena. Bat egin genuen Debegearen estrategia industrialarekin eta denon artean BPTD Enpresa Elkartea sortu genuen, asmo horri arnasa eta gorputza emateko.

Zein neurri hartu beharko lirake Debabarrena ekonomikoki suspertzeko? Uste dugu prezisiozko teknologien inguruan etorkizuna egon daitekeela. Baina horretarako eskualdea itxuratu behar dugu, berrituz, erakargarriagoa egin, lurzoru, lokal eta eraikin egokiak eskaini, laguntzak bideratu proiektuak erakartzeko. Testuinguru aproposa jartzen badugu etorkizuna izango dugu. Hori ez da epe motzean lortzen, epe ertaineko estrategia behar

da, eta gero, ekintzak eta ekimenak martxan jarri, proiektu eta industriak hemen gera daitezten, berriak sortu edo etorri daitezten. Behar da ekintzailtza, eta eskualde honetan, nahiz eta ekintzailtza izan, proiektuak garatzeko ekintzailtza beste leku batzuetara joaten dira. Hori zuzendu behar dugu. Gainera, dugun egoera ez da positiboa. Guztiaren kontzientzia izanda, ditugun indarguneen gainean eraiki behar dugu etorkizuna. Orain egiten ari garena hurrengo belaunaldiak aprobetxatuko du. **Gipuzkoako enpresen %47ak aurkeztuta du ERTEa. Dagoeneko ekinean gaude, “normaltasun berrian”. Hasi da argitzen etorkizun ekonomikoa?** Erakunde gehienek diote, euren azterketen arabera, hiruhileko edo urte hau izango dela latzena, eta pandemia gaitzen hasten garen heinean ekonomia ere berreskuratzen joango garea. Denok ari gara hori sinisten, beraz, hortik dator enpresa-elkarteen mezua: erronka da horren egoera larrian dauden enpresa eta enplegu askori eustea, langabezia-tasa gehiago handitu ez ez dadin eta enpresak, susperraldia ematen denean, gertu egon daitezten hura ahalik ondoen aprobetxatzeko. Baina krisi hau ezezaguna da, oso larria, oso azkar etorri da eta zulo handiak sortzen ari da: jardueran, enpresen emaitzetan, erakundeen diru-bilketetan... agertoki berri batera goaz eta ezohiko neurriak hartu beharko dira arlo guztietan. **Zelako ezohiko neurriak?** Guk Alemania jarri izan dugu eredu modura, gure egitura ekonomiko industrialak antzekotasunak dituelako eta han ere ezohiko neurriak hartzen ari direlako. Ildo horretatik uste dugu aurrean eta datorren urtean zorpetzea tokatzen dela. Ezohiko zorpetze horri aurre egiteko, susperraldia hasi ondoren, fiskalitatean doikuntza batzuk egin daitezke, zorrak itzultzeko, eta horri esker, berriro ere, herri finantzak osasuntsuak izan daitezten. Alemaniak oraingo eta aurreko krisian, enpresen jarduera %30 baino gehiago jaitsi denean, laguntzak eman dizkio enpresari haren kotizazio soziala ordaintzeko eta jaitsiera horrekin lotutako soldataren zati bat ordaintzeko. Alemanian halako laguntzak oparagoak dira, urtebetekoak.



Ondare industrial gogoetagai

ARGAZKIA: ION SOBERA

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO


Uztailaren 1etik 25era bitartean, Ion Sobera argazkilari bilbotarrak abandonatutako nabe industrialei ateratako zortzi erretratu erakutsiko ditu erakusketa gelan, Soraluzeko Ars Galeriak gonbidatuta. Argazkiak, Bilbon, Gasteizen eta Frantziako hainbat tokitan ateratakoak dira.

Soberak argazkion estetika “ederra” baliatu nahi du ondare industrialak duen balio historiko eta arkitektonikoaz hausnarketa bultzatzeko herritarren artean.

“Soraluzetarren kasuan, SAPAko eraikinak duen balioaz jabetu behar lukete eta presioa egin administrazioak eraikin hori eraberritu eta funtzio berri bat eman diezaion, beste herri batzuetan egin duten bezala”.







Ongizate Sailak eta Bake Epaitegiak kokaleku berria estreinatu dute udaletxean.

Ohi baino zerbitzu murrizagoak

Normaltasun berrian sartu ginenetik, herriko hainbat zerbitzuz abiarazi dute jarduna; beste hainbat oraindik jardun murriztuarekin ari dira

Ekainaren 19an indargabetu zuen alarma egoera Eusko Jaurlaritzak. Harrezkero, poliki-poliki herriko zerbitzuak ohiko jarduera berreskuratzeko bidean dira.

Zerbitzu publikoen artean, udaletxeko harreran hasi dira aurrez aurreko arreta eskaintzen, ohiko ordutegian. Gizarte Ongizate Sailean eta Bake Epaitegian berreskuratu dute ohiko jarduna; hori bai, lekuz aldatuta, udaletxeko 2. solairuan daude ekainaren 3az geroztik. Bertaratzeko txanda hartu beharra dago. Bestalde, Eguneko Zentroa eta Itxaropena elkarteak ekainaren 8an zabaldu zituzten.

Kultura eta kirola

Udal liburutegiari dagokionez, hilabete hasieran mailegu zerbitzua eskaintzen hasi zen, goizez eta aldeztu aurretik txanda hartuta. Ikasgela ere zabalik dago.

Kiroldegia, berriz, itxita segitzen du. Datozen egunotan, Kirol batzordean erabakiko dute harekin zer egin.

Dendak eta tabernak

Osterantzean, saltokietako eta tabernetako edukiera-mugarik ez dago. Gehienek ohiko ordutegia eta zerbitzuak berreskuratu dituzte. Hori bai, hainbat saltoki hasi dira, edo datorren astean hasiko dira, udako ordutegia aplikatzen. Beraz, batzuk arratsaldeztik itxita egongo dira eta beste batzuek ordutegia murriztuko dute.

Tabernei dagokienez, berriz, oraingoz, bere horretan mantenduko dituzte terrazak, ohikoak baino handiagoak. Udala tabernariekin dirulaguntzen eta terrazan gaiak lantzeko batzarra egitekotan da.

Bisita gidatuak eta indusketak

Dolmenen Ibilbidea hasi da bisitariak hartzen. Horrez gain, uztailaren indusketak hasiko dituzte bertan.

Bisitei dagokienez, bi egin dituzte eta bietan leku guztiak bete dira. Uztailaren 12an izango da hurrengo bisita. Parte hartzeko txanda hartu beharra dago aldeztu aurretik.

Indusketak, berriz, Sabuan eta Aizpurukozabalan egingo dituzte.

Poltsa gutxi ari dira saltzen

Bizikale merkatari elkartetik esan dutenez, oraingoz, elkarrekin ateratu dituen "poltsa solidario" gutxi saldu dira. Maiatzean jarri zituzten salgai, poltsen salmentatik eskuratutako diruarekin herritarrendako erosketak ateratzeko asmoarekin. Poltsak 5 eta 7 euroan erosi daitezke, elkarrekin saltokietan edo tabernetan.

Lore lehiaketa indartzen

Inoizko parte-hartzerik handiena eskuratu du Balkoietako eta Leihuetako Lore Lehiaketak. Izen-emate epea ixtear, gaur gaurkoz, 10 herritar dira lehiakide. Epaimahaiak ekainaren 29tik uztailaren 3ra bitartean egingo ditu balkoien eta leihoen ikustaldiak. Sari banaketa, berriz, uztailaren 6an egingo dute.

Ur-txorroak futbol-zelaian

Datozen egunotan egingo dute instalazioa eta berehala abiaraziko dute zerbitzua; arratsalde zabalduko dituzte txorroak

Udan, aisialdirako gune berria izango da herrian: ur-txorroak, Ezoziko futbol-zelaian.

700 euro inguruko inbertsioa eginez, datozen egunotan bi txorro egokituko ditu Udalak bertan. "Materiala eskatuta dago, hura iritsi bezain laster instalatuko dugu", esan du alkateak.

Solariuma ere bai

Zaharberritu duten sare inguruan tutuen instalazioa egingo dute, futbol-zelaiko taberna alderako esparrura ura bota eta bertan urarekin jolasteko edo freskatzeko aukera emanaz. Horrez gain, futbol zelaia ureztatzeko orain dagoen mangera ere erabiliko dute, haren txorroa egokituta.

Horrez gain, Iribe baserri aldera dagoen futbol-zelaiko



Futbol-zelaia.

gunean eguzkia hartzeko aukera izango dute herritarrek.

Arratsaldez

Zerbitzua abiarazteko, arratsalde zabalduko dute aisialdirako gune berria. "Behin

hura erabiltzen hasi eta zelan funtzionatzen duen ikusten dugunean, egutegia eta ordutegia zehaztuko ditugu. Astebeteko probaldia ezarriko dugu zelan funtzionatzen duen ikusteko", azaldu du Iker Aldazabal alkateak.

COVID-19aren bueltan ezarritako segurtasun neurriei dagokienez, berriz, "espazioa mugatuta" egongo dela jakinarazi du Aldazabalek, "distantziak zaintzeko, babes neurriak errespetatuz".


Herritar baten proposamena

Ezoziko futbol-zelaian aisialdi-gune berria egokitzea herritar batek egindako proposamen batetik dator: "Proposamena aztertu genuen, Kirol Batzordean ere eman genuen haren berri, egitea posible zela ikusi genuen eta aurten egiten ahaleginduko ginela erabaki genuen. Hartara, herritarrendako beste aisialdi-gune bat egokituko da herrian. Dena ondo irteten bada, instalazioa eginda dagoenez, baliteke datorren urtean ere berriro erabiltzea", adierazi du Aldazabalek.

Ibai bazterreko orkatza berbegai izan da azken asteotan

Zeresan handia ematen ari da Mendiola industrialdeko ibai bazterrean dabilen edo ibili den orkatz-kumea. Ekainaren hasieran ikusi zuten lehen aldiz eta berehala bertaratu zen Udaltzaingoa. Ibaitek irteten ez zenez, basozainari deitu zioten. Hura etorri zen, baina ez zuen orkatzik ikusi. Hala ere, animaliak ibai bazterrean jarraitu zuen eta

herritar batek, arduratuta, 112ra deitu zuen. Ondorioz, Ertzaintza eta suhiltzaileak bertaratu ziren ekainaren 16an. Suhiltzaileak orkatzarengana jaisten ahalegindu ziren, baina, animalia ibaiaren beste aldera joan zen. Orkatzaren egoera onean zegoela ikusita, "bere kasa" joaten lagatzea erabaki zuten. Harrezkero, ez dute bertan ikusi.



Orkatza ibai bazterrean.

Eukaliptoaren gaia udalbatzarrera

Uztailaren 2ko udalbatzarrean bozkatuko da herrian eukalipto landaketak eragozteko eskatzen duen mozioa.

Maiatzean, Soroluzeko Baso Biziak taldeak sinadura bilketa abiatu zuen herrian eukalipto-landaketak geldiarazteko helburuarekin. Hogeitabat egunez sinadurak batzen jardun ostean, guztira, 760 sinadura batu dituzte, horietatik 461 soroluzetarrenak. Taldekideak, gustura daude ekimenak jasotako babesarekin. Alderdi guztiekin bildu ostean, mozioa prestatu eta uztailaren 2ko udalbatzarrean aurkeztuko dute, bozkatu dadin.



Eukalipto.

Eskaria Udalari

Mozioak eukalipto espezie inbaditzaileen zerrendan sartzeko prozesua bizkortzeko premia azpimarratzen du eta herrian, azken bi urteetan, insignisaren gaixotasuna dela eta, zuhaitz eremu zabalak mozten ari direla eta pinua ordezkatzeko proposatzen diren espezieen artean eukalipto dagoela ohartarazten du. Udalari eskatzen dio Soroluzen eukalipto eta gainerako espezie inbaditzaileen landaketak eragozteko “bere esku dagoen guztia egin dezala” eta Jaurlaritzari eta Aldundiari Espezie Inbaditzaileen Katalogoa eratu eta baso-politikak alda ditzaten eska diezaioala.

Udalbatzarra uztailaren 2an egingo da arratsaldeko 19:00etan.

Ezohiko hauteskundeak

Neurri zorrotzak bete beharko dira; adibidez, ilarak sortzen badira, 65 urtetik gorakoek eta haurdun daudenek lehentasuna izango dute

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak COVID-19ak baldintzatutakoak izango dira. Segurtasun neurri zorrotzak errespetatu beharko dira, Jaurlaritzaren jarraibideen arabera. Adibidez, hauteskunde-mahaietako kideak elkarren artean 1,5 metrora egongo dira; botoa ematera doazen herritarren arteko distantzia gordetzeko lurtean markak egingo dira; ilarak sortzen badira, hautesle-

zaugarriak (65 urtetik gorakoak edo haurdun dauden emakumeak) lehenetsiko dira, hauteskunde-mahaietan ahalik eta denborarik gutxien igaron dezaten; bozketa-egunean, aireztatuta egongo dira hauteslekuak eta mahaiak, boto-kutxak eta kabinak tarteka garbituko dira, baita komunak eta sarri ukitzen diren bestelako gainazalak ere; hauteslekurako sarreran nahiz mahaietan gel hidroalkoholikoa egongo da,

baita zakarrontziak ere. Horrez gain, hauteskunde-mahaiak ixten direnean, lokalak garbitu eta desinfektatuko dira.

Pilaketak saihestu

Soroluzeko hautesbarrutiari dagokionez, ohi moduan, kiroldegian egokituko dituzte bost hauteskunde-mahai.

Bestalde, botoa emateko, herritarrak ohiko sarreratik sartuko dira; irten, berriz, larrialdietarako atetik itergo dira, Gaztelupeko terrazara. Hartara, bozketa egunean, jende pilaketak sortzea saihestuko dute. Arrazoi berarengatik, hauteskunde-mahaietan, asko jota, boto-emaille bat eta kabinan beste bat egongo dira. Gainerakoek kiroldegi kanpoan egon beharko dute itxaroten.

Euskaraldia entitateetara doa

Uztailean, aurkezpen pilotoak egingo dituzte herriko hainbat enpresa eta komertziotan.

COVID19-ak epeak atzeratu baditu ere, aurtengo Euskaraldia prestatzeko lanak abian dira berriz. Uztailean, 365 Taldeko euskaltzale boluntarioek herriko hainbat enpresa, komertzio eta elkarte bisitatuko dituzte, hauei aurtengo planteamenduaren nondik norakoak aurkezteko.

Ariguneak entitateetan

Aurtengo Euskaraldiaren nobedade nagusia entitateak dira, izan ere, aurtun,



Mendiola industrialdeko enpresak.

norbanakoekin batera, entitateek ere parte hartu ahal izango dute hizkuntza ariketa erraldoian. Horretarako, entitateek euren baitan 'Ariguneak' (euskaraz eroso egiteko gune babestuak) identifikatu eta izendatu beharko dituzte. Ariguneetan, aurtengo Euskaraldiak iraungo duen hamabost egunetan (2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra), ariketa linguistikoa egingo dute, Belarriprest eta Ahobizi metodologia aplikatuta.

Entitateek irailaren amaierara arteko epea izango dute Euskaraldian izena emateko. Ostean, norbanakoen izen-ematea irekiko da.

Aurreko Euskaraldiko metodologia berbera erabiliko da, Belarriprest eta Ahobizi figuretan oinarritua.

UMEENDAKO TAILERRAK 2020-2021 URRITIK MAIATZERA

ZIRKOA

Adina: 4-7 urte, HH4-LH2

Eguna: Asteartea, 17:00-18:15

Kuota: Hilean 20 euro

ROBOTIKA

Adina: 8-12 urte, LH3-LH6

Eguna: Asteazkena, 17:00-18:15

Kuota: Hilean 25 euro

BERTSOLARITZA

Adina: 10-12 urte, LH5-LH6

Eguna: Irakaslearekin zehaztuko da

Kuota: Hilean 10 euro

XAKEA

Adina: 8-12 urte, LH3-LH6

Eguna: Astelehena, 17:00-18:00

Kuota: Hilean 18 euro

MEKANOGRAFIA

Adina: 8-12 urte, LH3-LH6

Eguna: Ostirala, 13:30-14:30

Kuota: Hilean 25 euro (+17 euroko matrikula)

IZEN-EMATEA: uztailaren 1etik 17ra

Online: [soraluzeko.eus](http://soraluzeko.udala.eus)

Presentziala: Udaleko Harrera Bulegoa



SORALUZKO
UDALA





lazko udalekuak. ARTXIBOA.

Udaleku bereziak

Uztailaren 6an hasi 17ra bitartean egingo dira aurtengo udaleku irekiak, segurtasun neurri bereziekin.

Zalantzan izan dira azken unera arte, baina azkenean Soraluzeko Udalak eta Kukumixo aisialdi taldeak udalekuak egitea erabaki dute; Covid19ak eragindako oztopoen gaineratik, umeei aisialdirako aukera eskaintzeko beharra lehenetsi dute.

74 ume

Izen-ematea amaituta, guztira 6-12 urte bitarteko 74 umek eman dute izena, iazko kopuruaren erdiak. Antolatzaileen esanetan, jeitsiera nabarmena da baina esperotakoa: “Zeharo ulergarria da gauden egoeran zenbaitek zalantza egitea eta izenik ez ematea. Aurtun, gainera, 4-5

urteko umeak udalekuetatik kanpo laga behar izan ditugu eta horrek ere izan du eragina”.

Hezitzaileei dagokienez, aurtun 9 hezitzaile izango dira, euretako gehienak lehenagotik ere udalekuetan jardundakoak.

Segurtasuna zentzuz

Jaurlaritzak udalekuetan segurtasuna mantentzeko ezarri dituen arauak ezarriko dituzte Soraluzen ere: umeak hamar laguneko taldeetan antolatuko dira, taldeen arteko kontaktua eragotziz; umeei tenperatura hartuko diete; eta musukoa erabiltzearekin batera, bi metroko distantzia zainduko dute. Hori bai, antolatzaileek adierazi dute,

neurriok zentzuz ezarriko dituztela eta unean-unean, jardueraren arabera, musukoa erantzi ahalko dute; esaterako, “mendira doazenean edo distantzia mantendu daitekeenean”.

Mendira eta potzuetara

Aurtengo Udalekuetako jarduerak Covid19ak eragindako egoerara egokituko dituzte. Aurtun ez da herriatik kanpora irteerarik egingo eta jarduera guztiak herrian bertan burutuko dira. Jarduera guztien artean aire libreko planak lehenetsiko dituzte, umeak askeago ibili ahal izan daitezen. Eguraldi ona denean, mendira joango dira eta inguruko potzuetara ere bai bainatzera (Sagar Errekara txikienak eta Osintxun nagusienak). Horrekin batera, jolasak egokitu egingo dituzte segurtasun neurriak betetzeko: plastifikatuz, erabilera bakarreko papertxoetan inprimatuz eta abar.

Euskararen arnagune

Konfinamendu osteko egoeran, ume askok euskararekin kontaktua galduta izan eta gero, euskaraz egiteak garrantzi berezia hartuko du eta umeei euskaraz egiteko arnagunea eskaintzea izango dute helburu, hezitzaileen artean hizkuntzaren gaiari arreta berezia eskainiz eta berbazko jolasak prestatuz, besteak beste.

SEGURTASUN NEURRIAK ZENTZUZ EZARRIKO DIRA, JARDUERAREN ARABERA

"Gozatzen ahaleginduko gara"

MIREN GALLASTEGI KUKUMIXOKO KOORDINATZAILEA

Zela doiaz antolaketa lanak?

Ondo, baina normalean hiru hilabetean egiten dugun lana hilabetean egin beharko dugu. Gainera, jarduera asko egokitu behar izan ditugu, irudimena erabilia.

Izen ematea erdira jeitsi da.

Zergatik uste duzu gertatu dela?

Espero genuen ume gutxiagok izena ematea. Segurtasun neurriak bete behar direnez, batzuk beldurtu egin dira eta ez dute izenik eman. Horrekin

batera, 4-5 urtekoak kanpo laga ditugu eta horrek ere izan du eragina.

Segurtasun neurriak atzera eragiteko modukoak dira.

Bai, baina zentzuz ezarriko ditugu, adibidez, mendira kirola egitera goazenean ez dira musukoak jarri beharko, baina bestela bai. Gozatzen ahaleginduko gara. Gainera, distantzia mantentzea errazten duten jolasak ere aukeratu ditugu: olinpiadak taldeka bereiztuta egingo ditugu,



Miren Gallastegi.

bakoitzak bere txoko propioa izango du...

Hizkuntzak garrantzi berezia izango du.

Bai, begirale denak lehenago ere udalekuetan ibilitakoak gara eta hizkuntzaren erabilera sustatzeko formazioa jaso izan dugu. Euskarari arreta berezia jarriko diogu.

Euskara errefortzua 25 umeri

Umeei euskara errefortzuak eskaintzeko egitasmoan 7 boluntariok eta 11-12 urteko 25 ume k parte hartu dute.

Konfinamendu garaian, eskolarik izan ez denez, ume askok galdu egin dute euskararekiko zuten kontaktu bakarrenetakoa eta egoera horri erantzun nahian, ekainean, zehar, zazpi boluntariok astean ordubete inguruko bi bideo-dei egin dituzte umeekin, elkarrekin euskaraz egiteko.


Arrate Gisasola egitasmoa gidatu duen teknikariaren esanetan "etxealdiak areagotu egin du ume askok euskararen erabilera duten hutsunea, eta

mintzapraktiken egitasmoak bidetxo bat zabaldu du hutsune hori betetzeko". Egitasmoaren emaitza "positiboa" ahalbideratu duten hiru gako azpimarratu ditu: "Helburu lorgarriak proposatzea, euskara eta bizipen positiboak lotuko dituen bideetan sakontzea, eta helduon laguntza, 'euskaraz egin' esatetik euskaraz egiten laguntzera". Irailean, errefortzu saioak ematen jarraitu nahi dute, "posible bada, modu presentzialean".



RAQUEL CRIADO GURASOA

"Eskolatik gomendatu ziguten eta oso esperientzia ona izan da. Semeak euskaraz egiteko aukera izan du".



BORJA SAN JOSE BOLUNTARIOA

"Jolasak eta berbetaldiak egin ditugu eta umeek interes handia erakutsi dute, Esperientzia polita."

Erriberako produktuak

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK: ONINTZA NARBAIZA

Herritarrek ekainaren 11an eta 12an Zentroan jaso zituzten Errigora egitasmoaren udaberriko kanpainako Nafarroako Erriberako produktuak: zainzuriak, piperrak, orburuak, potxak, olioak... Aurten, Sorluzetik 40 eskaera egin dira eta lehen aldiz eskaerak, guztira, 5.000 euroko balioa gainditu du.

Errigora egitasmoak diru horren zati bat Erriberako nekazariei produktuak ordaintzeko erabiliko du eta gainerakoa hango euskalgintzako eragileei emango die: ikastolei, euskaltegiei...

Bejondeizuela azulan erraldoi honetan parte hartzen duzuen euskaltzale guztioi! Hurrengo kanpaina udazkenean egingo dute, Erriberako produktuz osatutako saskiekin.





GUTUNAK

Bidegorriaren erabilera errespetatu dezagun

**NIKOLAS MORILLO
URIONABARRENETXEA**

Joan den astean, Osintxuko mugatik harago joan nintzen bidegorritik. Jende dezente dabil, baina ez dago arazorik bidegorriko kartelen jarraibideei jaramon eginez gero: txirrindulariak eskumatik eta oinezkoak ezkerretik, haiek noiz datozen ikusteko. Hartara, zirkulazioa ordenatua da eta hori garrantzitsua da, gehiago orain, COVID egoeran.

Baina Osintxuko muga zeharkatu eta Mekolaldera bidean, Bergararik datozen oinezkoekin gurutzatzean hasten dira arazoak. Bergarako bidegorri zatian ez dago jarraibiderik, eta eskumatik, ezkerretik... nahi duten lekutik azaltzen zaizkizu. Horren ondorioz, tirabiraren bat edo

beste izan dut eta begirakunak ere bai. Kontu honi buruz bestelako soraluzetar batzuekin berba egin dudanean, arazo bera izan dutela kontatu didate.

Kontatutakoa adierazteko, Bergarako Udalarekin harremanetan jartzea pentsatu nuen, baina eraginkorragoa izango litzateke gomendio hau hemengo Udalak egingo balio.

Normalitate berrian ere zaharrak berri

ZAINTZA SAREA

Itxialdian herritarrok elkar zaintzeko asmoz sortu genuen Soraluzeko Zaintza Sarea. Martxoan hasita, 3 hilabetez jardun dugu jasotzen genituen behar material zein afektiboei erantzuten. Etxetara janari edo botikak eramanaz, telefonoz konpainia eginaz, eskolako lanetan lagunduz, behar teknologikoak asez, umeei

euskarazko mintzapraktiketan lagunduz... Esperientzia gogorra izan da orokorrean eta are gogorragoa lan edota etxe duinik ez daukatenez edo lagun edo familia falta dutenez. Ez dakigu zer gertatuko den osasun krisiarekin datozen hilabeteetan, baina nahiko argi dago krisi ekonomikoak ezberdintasun sozialak handituko dituela. Krisi guztietatik aberatsak aberatsago eta pobreak pobreak irteten dira eta beraz, elkar zaintzen jarraitzeko premia izango da aurrerantzean ere. Oraingo uda garaiari begira deskantsu bat hartzea erabaki dugu. Egindako lanaren balorazioa egitea dagokigu orain. Eskerrik asko gure lana erraztu diguzuen guztioi, zaindu gaitezen!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Oporrak ezohikoak izango dira?

Aurten, COVID-19ak eragindako egoera dela eta, oporrak beste modu batera antolatuko dituzu ala betiko moduan?



GORKA BOLLAR

"Espero dut ezetz. Aldatzekotan egon ginen, baina probintzien arteko mugak zabalik daudela ikusita, optimistak gara eta uste dugu helduko garela helmugara. Akaso gauzak aldatu egingo dira eta etxean geratu beharko gara, konfiantza larregiarekin gabiltza eta..."



NEREA GABILONDO

"Ez digu eragingo udako planetan. Normalean Zarautzera joaten gara eta aurten berdin egingo dugu, etxe batetik beste etxera. Hori bai, Aste Santuan hartuta genituen oporrak Islan, eta hori bai, hori bertan behera geratu zitzaigun".

ZIR(R)IKA

P.G. JAIXAK



PUNTUA



MAITE GARMENDIA

Sare sozialak

Sare sozialak indar handia hartu dute gugan. Kontu handiz erabili behar ditugula badakigu, beldurra daukagulako gure datu pertsonalak edozeinek eskuratu ahal dituelako.

Baina inoiz ez ditugu sare sozialek ematen dizkiguten alde onak begirutzen, adibidez, komunikazio tresna oso baliogarri bat da. Azken urteetan erabilpen gehien izan dituzten sareak Facebook, Youtube eta Instagram dira. Gero eta jende gehiagok kontsumitzen dituzte plataforma hauek, eta kontsumitzaile gehiago badago, eduki gehiago sortzeko aukerak ere goruntz egiten dute.

Gure gaurkotasunean ere eragina dauka, nahiz eta guk oso barneratua eduki eta horrelako gauzetan ez dugun pentsatzen, hau da hain "normalizatuta" daukagu ez diogula garrantziarik emoten.

Adibidez konfinamentu honetan, oso lagungarriak izan dira bai informazio iturri moduan erabiltzeko eta baita gure familia edo lagunekin kontaktua mantetzeko.



IÑIGO OÑEDERRA

"Momentuz, bai. Oraindik ez dugu pentsatu nora joan. Ez gaude seguru, igerilekuetan, hondartzetan... nolako baldintzak egongo diren ikusi arte. Azken momentura arte itxarongo dugu. Beste urte batzuetan, berriz, normalean hartuta izaten ditugu oporrak".



MIREN ESPOSITO

"Erango du. Gertu samar mugituko gara aurtan. Hondartza ingurura joateko asmoa dugu, baina ikusi egin behar hondartzen baldintzak zeintzuk diren. Bero handia dagoen tokiren batera joatea gero hondartzara joatea mugatuta egoteko..."

Guztiz aldatuko dute udal aurrekontua

Alarma egoerak eraginda, 2020ko Udal aurrekontua goitik behera aldatuko du Udal Gobernuak. Ezaugarri nagusia inbertisioetan murrizketa handiak egingo dituztela da; horrekin batera, Udalaren gastua ere ukituko dute eta likidazioaren soberakinaren zatirik handiena sortu diren beharrei aurre egiteko baliatuko dute

Testua eta argazkiak:
Ubane Madera.



Eskolako patiorako eskailera.

Uztailaren 2an, eguena, osoko bilkura egingo dute -alarma egoera ezarri zenetik lehena- eta bertan landuko da Udal aurrekontua egokitzeko gobernuaren proposamena. Udal Gobernuak osatzen duten EAJK-PSE-EEK, gehiengo izan arren, oposizioko EHBildu bidelagun izan nahiko lukete. Oposizioko alderdiak, berriz, jakinarazi du, nahiz eta ulertzen duen aldaketa egin beharra, ez duela proposamena babestuko.

Aurrekontuaren aldaketari dagokionez, haren ezaugarri nagusia inbertisioetan murrizketa handiak izango dituela da. Doikuntza hori Udal Gobernuak erabakitako "lehentasun ukiezinek" baldintzatu dute. Iker Aldazabal eta Patricia Borinaga gobernuakideek esplikatu dutenez, "argi" zuten Ongizate Sailaren aurrekontua ez zela ukituko. Horrez gain, ukiezinak dira baita gastu arrunta eta pertsonal gastuak ere, "konprometituta" daudelako eta "finkoak" direlako.

Hori horrela, gobernuakideak inbertisioetan zentratu dira eta 2020rako aurreikusitako 288.458 euroko inbertisioak 106.000 eurotara murriztu dituzte, haietako hainbat bertan behera utzita eta beste hainbaten kopurua murriztuta. Ondoko taulan daude jasota zehaztasunak.

Edozelan ere, Iker Aldazabal alkateak azaldu du aurreikusitako inbertisio nagusiari, Plaentxi Herri Ikastetxeoari, eutsiko diotela: "Plaentxi Herri Ikastetxeo irisgarritasuna bermatzeko eskailera egingo da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik %60ko dirulaguntza lortu delako: 41.000 euro".

Bi neurri gehigarri

Inbertsioak murrizteaz gain, sortu diren beharrei aurre egiteko, beste bi neurri ere hartu ditu Udal Gobernuak: Udalaren hainbat gastu murriztu egin ditu eta iazko aurrekontuaren likidazioko soberakina -358.449,62 euro- ia osorik behar berrietara bideratuko dute. Haren zati bat erabiliko dute aurreikusitako proiektuen artean bakarra gauzatzeko: Errekaldeko etxea botatzea. "Etxearen egoera kontuan hartuta, segurtasuna bermatzeko botako dugu", esplikatuta dute gobernukideek.

Udal lantaldearen eta alkatearen soldatak murriztu

Gastua gutxitzeari dagokionez, hartu duten bide nagusia pertsonal gastuak murriztea izan da, aurreikusita zeuden igoerak ukituz.

Batetik, Udal lantaldearena. "%2ko soldata igoera izoztu dugu; baita Sustapen teknikariaren %20ko dedikazio-igoera ere. Krisi honetan lanpostuak bermatuta dituztenez, beste askoren egoera zein den jakinda eta funtzionarioei soldata ez igotzea bidezkoa ez bada ere, iruditu zitzaigun onargarria zela soldatak izoztea, egoera hobetzen denean igoera aplikatzeko asmoz. Bestalde, lan-jardun erdiz argiketaria kontratatzeke asmoa bertan behera gelditu da. baita uztaila-abuzturako Udal lantaldea indartzeko egin ohi den bi peoiren kontratazioa ere. Salbuespena etxez etxeko langileei plusa emango zaiela da, alarma egoeran arriskuarengatik lan-baldintzak bereziak izan direlako.

Bestetik, alkatearen soldata murriztu egingo da, %10,58an: "Erabaki erabat pertsonala izan da, Iker Aldazabalek hartutakoa. Esan didate ez egiteko, berdin kritikatuko nautela, baina egitena erabaki dut. Zein egoeratan gauden ikusita, uste dut denok egin behar dugula esfortzuren bat, eta ni alkate eta udaletxeko buru naizenez, ba etsenplua emateko", esan du alkateak.

Azkenik, "zerbitzuetan ukitu den bakarra Udal Gaztelekua da", azaldu dute: "Lehenagotik itxita zegoen, hainbat arazorengatik; momentuz, eta egoerak aurrera zelan egingo duen ikusi arte, Gaztelekuaren zapatuetako eta domeketako zerbitzuak etenda geratuko dira; ez, ordea, barikuetakoa".

ALKATEAK BERE SOLDATA %10,58A JAISTEA ERABAKI DU, "ETSENPLUA EMATEKO"

Egokitzapenak inbertsioetan**Gauzatuak direnak**

Plaentxi Herri Eskolako patioarako sarbidea zaharberritzeko	86.648 euro
Dolmenen Ibilbiderako partida	7.000 euro
Gimnasio berrirako makinak erosi dira	12.000 euro
Gazteria Sailean (Errekaldeko haur parkean jarlekuak ipini dira)	2.000 euro
Ongizate Saileko inbertsioak	15.410 euro
Inbertsio txikiagoak	11.400 euro

Bertan behera geratu direnak

Haur parkeak berritzeko	40.000 euro
Landa-eremuko bideak konpontzeko	35.000 euro
Argiteria gastuak	20.000 euro
Nekazal lur-sailen erosketa	8.000 euro
Gazteria Sailean	3.000 euro

Soberakinarekin egiteko aurreikusitakoak *

Errekaldeko 10eko etxea eraistea	Gauzatuak da
Santa Ana 2ko etxea eraistea (etxea erosiko da, botatzeko)	Ez da botako aurrean
Bidegorriko aisialdi-gunea egokitzea	Bertan behera
Skate-gunea.	Bertan behera
Sologoengo zentralako argindarraren gaineko azterketa	Bertan behera

* Likidazioa egitean, soberakinarekin egiteko hainbat inbertsio aurreikusten dituzte



Patricia Borinaga (PSE-EE) eta Iker Aldazabal (EAJ) Udal Gobernuako kideak udaletxean.

"Udalaren gain geratu da COVID-19aren karga guztia"

IKER ALDAZABAL ETA PATRICIA BORINAGA GOBERNUKIDEAK Murrizketak eta sarrera gutxitzeak tarteko, Udalaren egoera ekonomikoa "latza" da; hura zuzentzeko neurriek 2020ko jarduna baldintzatuko dute

Zein da Soraluzeko Udalaren egoera ekonomikoa?

"Egoera ekonomikoa oso latza da. Udal aurrekontuaren lau milioi euro pasatik bi milioi euro pasa dira Foru Aldundiak Foru Funtzaren bitartez ematen dizkigun diru-sarrerak; kopuru horri %20a kentzen badiozu... Eta ez hori bakarrik. Zergetan sarrera gutxiago izango dugu: jarduera ekonomikoaren gaineko zergetan, plusbalioetan, eraikuntzakoetan... Bestalde,

Udal aurrekontua oso baldintzatuta dago, kopururik handiena gastu finkoari baitagokio: pertsonal gastuak eta gastu arrunta (eraikinen mantenua, argiteria...). Gastu hori kontsolidatuta dago, ez dago murrizterik. Beraz, gobernatzen duenak gobernatuta ere, Soraluzeko Udalaren inbertsio gaitasuna oso txikia izateaz gain, oraingo moduko krisi egoera baten aurrean, maniobrarako

gaitasuna ere oso txikia da, bakarrik uki baitaitezke inbertsioak eta soberakina; eta gastua zertxobait.

Zela ari zarete egoera bizitzen?

Egoera zaila kudeatzea tokatu da, erakunde bakoitzaren kolore politikoa bat edo beste izanda ere. Gainera, Udala da herritarrengandik gertuen dagoen erakundea eta gure gain geratu dira gaitasun guztiak. Erabakiak goragoko mailetan hartu arren, haien kudeaketa guk egin behar izan dugu, horrek ekarri dituen gastu eta zailtasun guztiekin. Gainera, udaloi %20 murriztu digute finantzazioa, guztioi berdin. Adibidez, Soraluzeko Udalaren egoera eta Oñatikoarena ez da bera, baina murrizketa bera aplikatu digute. Gainera, gure baliabideak oso mugatuak ziren lehenagotik eta guk aurre egin behar izan diegu sortu diren osasun beharrei, nahiz eta gure eskumenekoak ez izan.

Hartutako erabaki ekonomikoez noiz arte baldintzatuko dute Udal jarduna?

2020. urtea. Hurrengo urteetan, diru-bilketa ondo badoa eta aurreikuspenak betetzen badira, diru-sarrerak izango ditugu eta horren arabera, atzeratu edo bertan behera utzitako inbertsioei berriz heltzeko aukera izango dugu.

Ze neurri hartu dituzue sortu diren beharrei aurre egiteko?

Uztailaren 2ko osoko bilkuran, 38.000 euroko kreditu aldaketa onartuko da, ostalariei eta merkatariei dirulaguntza zuzenak emateko. Bestalde, haiei laguntzeko bestelako dirulaguntza batzuetara aurkeztuko gara eta Jaurilaritzak 26.984 euro gehiago eman dizkigu Gizarte Larrialdietako Laguntzetarako.

OPOSIZIOAREN IRAKURKETA



UNAI LARREATEGI EH BILUKO BOZERAMALEA

Udal gestio okerrari errematea eman dio COVID-19aren krisiak

2020ko aurrekontua berregokitu behar izan du Gobernu taldeak eta murrizketa gogorak planteatu ditu, inguruko herrietan baino neurri gogorragoak. Langileen soldata izoztea planteatu duen udal bakarra izan da, adibidez, eta, irailetik aurrera, DBHko ikasleentzat Gaztelekua itxita mantentzeko asmoa agertu du.

EH Bildutik, bat gatz aurrekontuak egokitzeko gerora sortutako beharrarekin; azken urteetako kudeaketa ekonomikoaren ondorioz ikusten zen hori, eta aspalditik azpimarratzen aritu izan gara: diru-sarrerak asko hazi arren, gastuak gehiago ari dira handitzen eta, ondorioz, Udalaren egoera ekonomikoa, hobetu beharrean okertzen ari da.

Horregatik, aurrekontuak onartu zituztenean, EH Bilduko zinegotziok ez genion aldeko botorik eman azken urteetako kudeaketa ekonomikoaren eredia errepikatzen zuten aurrekontuei, eta onartu ez zen honako proposamen hau egin genuen: Udalak diru-sarrera eta gastu guztien azterketa egitea, gestio eredia aldatu ezean, etorkizuneko perspektibak ez baitauka batere itxura onik.

Koronabirusaren osasun-larrialdiak uste baino lehen kokatu gaitu etorkizuneko perspektiba horretan eta



itsulapikoa hutsik daukala harrapatu du Udala.

Diru-sarrerak %20tik gora jaitsiko dira gutxienez. Urtarrilean itxura onik ez bazuen, imajinatu zein den gaur egun Soraluzeko Udalaren egoera ekonomikoa. Saihesbideko asfaltatze lanetan gertatutakoa baino adibide argigarriagorik gutxi topatuko ditugu. Konpontzeko premia handia daukan zati bat asfaltatu

URTARRILEAN ITXURA ONIK EZ BAZUEN IMAJINATU ZEIN DEN UDALAREN ORAINGO EGOERA EKONOMIKOA

gabe utzi behar izan da diruak gastatu direlako.

Aurrekontuak egokitzeko beharrarekin bat etorri arren, murrizketak kronifikatzeko arrisku erreala dagoela uste dugu eta azpimarratu nahi dugu, irtenbide alternatiboak bilatu ez ezik, beharrezkoa dela azken urteotako kudeaketa ekonomikoaren eredia aztertzea eta aldatzea: “Emaitza ezberdinak bilatzen badituzu, ez egin beti gauza bera”. (A, Einstein)

Ezinbestekoa da Gobernu taldeak dinamika aldatzea eta elkarlanaren bideari ekitea; egungo panoramak alarma gorri guztiak pizteko balio beharko luke. Momentu delikatu honetan ulertezina litzateke EHBildurekin, hauteskundeetan herritarren babes handiena jaso duen taldearekin, bide berri bat eraiki nahi ez izatea.

Aurrekontuen gure analisia partekatze eta, elkarlanean, bere osotasunean berrikusteko proposamenari eusten diogu; EH Bilduko zinegotziok ekarpen handia egin dezakegu, duda barik.

Ea ba alderdikeriak albo batera utzi eta herriaren alde Alkarrekin lan egiten asmatzen dugun. EH Bilduko zinegotziak PREST gaude bide horri ekiteko. PREST guztiakin eta batez ere egoera zailean zaudetenekin etorkizun hobe bat eraikitzeko. Besarkada bana guztioi, lortuko dugu!

20 bikote pilota txapelketan

Alarma egoerak ezarritako oztopoen gainetik, aurten ere pilota txapelketa antolatu dute eta 40 lagunek eman dute izena.

Ofizialki datorren astean hasiko bada ere, dagoeneko hasi dira Asier eta Iñakiren Omenezko XIX. Pilota Txapelketako partiduak jokatzeko. Gainera, antolatzaileak oso gustura daude aurten 40 lagunek eman dutelako izena (iaz 24 izan ziren).

Segurtasun neurriak

COVID19-aren eraginez, segurtasuna bermatzeko hainbat neurri hartuko dituzte: kantxan lau pertsona bakarrik



lazko txapelketako finala.

egon ahalko dira, ikusleen artean segurtasun neurria mantentzea beharko da, eskuak deinfektatzeko produktuak ipiniko dituzte... Horrekin batera, jakinarazi dute aurten ez dutela salda eta txorixorik banatuko.

Dena den, antolatzaileek argi laga nahi izan dute eurak ez direla "polizia lanetan" ibiliko eta neurriak betetzearen ardura parte hartzaile guztiena izango dela.

Finala irailean

Aurtengo txapelketako partiduak ekainean hasi eta irailera bitartean (abuztua barne) jokatuko dituzte San Andresko frontoian. Finala, berriz, irailaren 12an edo 13an jokatu da, baina oraindik ez dituzte eguna eta ordua zehaztu.

**merezi
duzun
herria**



MADDALEN
IRIARTE
OKINENA

m

ehbildu

**egiteko
prest.**

maddalen
ZURE LEHENDAKARIA



Kultur programazioa prestatzen jardun duten herritarretako batzuk. FERNAN OREGI.

Aurten Kulturaldia

Jaiak bertan behera laga ostean, uztailean kultur programazio berezia izango da: Kulturaldia.

Udalak herriko hainbat eragilerekin batera (Gaztelupeko Hotsak, Pil-pilean, Colección Ars, txistulari eta dultzaineroak, artisauek, baserritarrak, errugby taldea...) askotariko kultur eta kirol eskaintza berezia antolatu dute uztaileko: Ruper Ordorika, Juan Navas, Amak eta Habana 537 taldeen kontzertuak, Ene ba! antzezlanak (martxorako programatua zena), ondare industrialari buruzko argazki erakusketa, filmen proiektzioak, artisauek eta baserritarren azoka, errugby eguna, Picassoren omenezko margolanen muestra, txistulari eta dultzaineroen kalejira eta punta puntako bertso saio bat ere bai.

Horietatik emanaldi gutxi batzuk besterik ez dira egingo Santiago eta Santa Ana

Egunetan, uztailaren 25 eta 26an. Izan ere, jaiak bertan behera laga ostean, Udalak eta kulturagileek erabaki baitute emanaldiak uztaileko asteburuetan zehar egitea, jende pilaketak eragozteko. Arrazoi berarengatik, abuztuko Andramari jaietan, abuztuaren 15ean Erandioko bandak eskainiko duen kontzertua izango da aurten Udalak programatuko duen ekintza bakarra.

Streaming bidez, zuzenean

Kultur emanaldi gehienak goiko frontoian eta antzokian egingo dira, segurtasun neurriak hartuta, eta emanaldietatik hiru (Juan Navas, Amak eta bertso saioa) streaming bidez eskainiko ditu Plaentzia.eus-ek. Sarrerak Iratxon eta udaletxean bertan daude salgai.



ABEL OLAIZOLA

KULTURA ZINEGOTZIA

"Lehenengo osasuna da eta horregatik erabaki dugu jaiak bertan behera laga eta kultur ekimenak uztailean zehar antolatzea. Eskertu nahi dugu herriko eragileek izan duten prestutasuna".



UBANE UZIN

GAZTELUPEKO HOTSAK

"Garrantzitsua da berriz dena martxan jartzea, bereziki kultura eta aisia beste modu batera bizitzeko aukera ematen digulako eta kulturagileei aukera bat ematen dielako".



ALBERTO RAMIREZ

ARS GALERIA

"Uztaileko kultur programazio honek aukera ederra ematen du, ohiko jai girotik aparte, musikaz, antzerkiak, pinturaz... gozatu ahal izateko, soseguz eta pentsatzeko astia hartuz".



Ruper Ordorika. 2016an Soraluzean eskaini zuen kontzertuan. ARTXIBOA.



'Kafe Antzokian' diskaren azala (2019).

Ruper bakarka

Konfinamendu osteko bere lehen kontzertua eskainiko du zapatuan, 19:30ean, antzokian. "Sasoi ezberdinetako kantuak" joko ditu, bakarkako formatora egokituta.

Lau urteren ostean itzuliko da berriz Ruper Ordorika Soraluzean, oraingoan, bakar-bakarrak, gitarra lagun hartuta. Azkeneko Soraluzean izan zenetik (2016ko abenduan), oñatiarrak bi lan kaleratu ditu: 'Bakarka' izeneko diskoa 2018an eta 'Kafe Antzokian' izeneko (zuzeneko baten grabazioa), iaz. Bi lanotan, kantariak bere ibilbide luzean zehar sortu dituen kantarik ezagunenak jaso ditu. Hain zuzen, aurten bete dira berrogei urte bere lehen diskoa 'Hautsi da Anphora' (Xoxoa-Elkar, 1980) kaleratu zuenetik. Ordutik hona, guztira, 21 disko kaleratu ditu euskal kantaririk oparoenetakoa bihurtu denak.

Soraluzen zapatuan eskainiko duen emanaldian, "sasoi ezberdinetako kantuak" joko ditu, formato horretara egokituta.

Lehen kontzertua

Joan zen astean Euskadi Irratiko Faktoria saioan azaldu zuenez, konfinamenduaren ostean eskainiko duen lehen kontzertua izango da Soraluzean eskainiko duena: "Poliki-poliki ari naiz urteten. Oraintxe hasi naiz kontzertuak emateko irrika hortan eta dagoeneko lotu nire lehenengo kontzertua: Soraluzean izango da, bakarka". Taldearekin (Mugalariekin) datorren hilean da hastekoa Konfinamendua Saran

(Lapurdi), gaur egun bizileku duen herrian, pasatu duela azaldu zuen Ordorikak, eta pausaldiari "bortitza" iritzi badio ere "pauza handi batek bakea" ere ematen duela aipatu zuen eta lehen egunetako nahasmendua pasatuta, "berehala nirvanan sartu" eta denbora irakurtzeko eta LP zaharrak entzuteko baliatu duela. Horrekin batera, etxealdian "kantatxoren bat" ondu eta Sarrionandiak laster Madrilan argitaratuko duen libururako itzulpenak egiten ere jardun duela aipatu zuen.

**"POLIKI-POLIKI HASI
NAIZ URTETEN.
ORAINTXE SORTU ZAIT
KONTZERTUAK
EMATEKO IRRIKA HORI."**

**AURTEN BETE DIRA
BERROGEI URTE BERE
LEHEN DISKOA
KALERATU ZUENETIK:
'HAUTSI DA ANPHORA'."**



Juan Navas boskotea. GAZTELUPEKO HOTSAK.

Juan Navas boskotea

Ordubete pasatxoko ikuskizun flamenkoa da; musika, kantua eta dantza uztartzen dituena. Tartean, euskaraz kantatutako saeta bat ere interpretatuko dute. Uztailaren 11n, zapatuan, antzokian.

Juan Navas Bilbon jaioa da 1975ean, eta "Kantaorea" da. Duela hamar bat urte hasi zen jendaurrean abesten eta bere helburu nagusia da "flamenkoaz gozatzea eta lurralde honetako jendearengana hurbiltzea".

Navasek aitortzen du askotan galdetu diotela bilbotarra izanik nolatan bihurtu den flamenko kantari; berak halakoetan Enrique Morenteren esaldi bat baliatzen du galdera horri erantzuteko: "Nondik datorren jakin gabe etorri da". Hala ere, aitortzen du flamenkoarekiko zaletasunare parte bat familiatik datorkiola: "Flamenko musika beti izan dut lagun. Hegoaldetik (Cordovatik)

emigratu behar izan zuen nire familiari zor diot".



Juan Navas. GAZTELUPEKO HOTSAK.

Flamenkoarekiko grina horrek bide askotatik ibilarazi du bilbotarra: errezitaldi eta jaialdietan parte hartzen hasi zen eta gerora hainbat flamenko taldeko kide ere izan da: 'Txaleo', 'Flamenco Daki'... Soledad Ruz dantzariaren konpainiako kide ere izan da. 2017an, 'Reflejos de Andalucía' bere lehen diskoa kaleratu zuen Beñat Arginzoniz olerkari bilbotarraren olerkiak bertsionatuz. Aurten "abentura flamenko berri bat" aurkeztuko du: 'Digo vivir', bere bigarren lan diskografikoa. Bertan, ahotsa jarri die Blas de Otero olerkari bilbotarraren poemei.

Soraluzeko emanaldia

Soraluzeko emanaldian Juan Navas kantaoreak lau taldekide izango ditu alboan: Curro Bermejo (gitarra flamenkoa), Lidia de Lorenzo (dantzaora), Dario Campos (perkusionista) eta Julen Biain (palma jotzailea). Bere bi diskoetako kantuak interpretatuko dituzte musika, kantu eta dantza biltzen dituen ikuskizun flamenkoan.

Euskarazko saeta

Urteotan ondu duen kantutegian, euskarazko saeta bat ere badu Navasek, "lehen aldiz, historian". Letra Beñat Arginzoniz bilbotarrarena da eta droga aipatuz, oroitzen du auzoan (Otxarkoagan) "malamentean hil den jendea".

"FLAMENKO MUSIKA BETI IZAN DUT LAGUN. HEGOALDETIK EMIGRATU ZUEN NIRE FAMILIARI ZOR DIOT."



Amak ikuskizuneko partaideak. GAZTELUPEKO HOTSAK



Maixa Lizarribar.

"Trikitixa da gure arma"

MAIXA LIZARRIBAR AMAK TALDEKO MUSIKARIA

'Amak' amak dira eta lau. Lau trikiti, lau pandero, lau ahots: Alaitz Telletxea (Alaitz eta Maider), Maixa Lizarribar (Maixa ta Ixiar), Amaia Oreja (M-n Ezten) eta Kristina Solano (M-n Ezten). Uztailaren 18an, 19:30ean, frontoian.

Ikuskizun "bitxia" da, "trikiti, pandero eta ahotsen hamaika bariazio edo konbinazioekin", euren jatorrizko taldeen kantuei eta abesti klasiko batzuei forma berria ematen diena.

Uztarketa berezia da, "Iparraldeko kantaera ohituraren ikuspegia eta une berean astindutako lau trikiti" uztartzen baitira emanaldian. 50 minutu inguruko emanaldi atsegin eta dotorea,

"Euskal Herriko folk musikaren ertzak betiko moldeetatik atera eta proposamena plaza arruntetatik kanpo gorputzu nahi duena".

Noiz jarri zenuten martxan ikuskizuna?

2018ko udazkenean izan zen hasiera. Emanaldi baterako deitu ziguten, gustura sentitu ginen, beste bat egiteko deia etorri zen.... Entsaioetarako biltzen ginenean oso gustura sentitzen ginen, deiak etortzen hasi ziren, eta prest ginen.

Zergatik Amak izena?

Gure izenekin egindako jokua da. Trikitilarien artean oso normala da norberaren izena edo baserriaren izena izatea. Gainera laurok amak gara. Amak hitzak asko esaten du.

"Betiko moldeetatik" ateratzeko nahia aipatzen duzue.

Ufff! Guk ere ez dakigu zein diren betiko moldeak. Zaharrak? berriak? Gustatzen zaiguna eta nahi duguna egiteko aukera dugu eta horixe da egiten saiatzen garena.

Zer jaso duzue publikoaren aldetik?

Guk jaso duguna oso ona izan da. Oso maitatuak sentitu gara uneoro. Edozein adin eta motatako publikoa gerturatu zaigu. Trikitixa da gure arma eta guregana gerturatzeko denak gustuko izan behar du.

Errepertorioko kantu zehatzen bat aipatzerik bai?


Bertsio asko ditugu. Gure kantuetatik hasita. Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider eta M-n ezten taldeetako abestien moldaketak. Zaldibobo, Imanol Lartzabal, Oskorri... Oraindik ez dugu single-lik.

IKUSKIZUN "BITXIA" DA PANDERO ETA AHOTSEN HAMAIKA BARIAZIO ETA KONBINAZIOREKIN

Picassoren omenezko muestra

Uztailaren 25 eta 26an, pintura eta artelan erakusketa jarriko da ikusgai zubian.

Santiago eta Santa Ana egunetan, Alberto Ramirez margolari eta artista soraluzetarraren hainbat margolan eta artelan jarriko dira ikusgai Zubi nagusian. Ramirezek konfinamendu garaian margotu eta sortu dituen piezen lagin bat izango da zubian ikusgai jarriko dena. "Konfinamenduan pasatutako hilabeteetan, asko margotu dut eta eskultura batzuk ere egin ditut eta horiek erakusteko gogoia sentitu dut."



Margolanetako bat.

Lanik gehienak, "Picassoren lanen berrinterpretazioak" dira, eta Ramirezek erakusketa baliatu nahi du margolari handiari omenaldi bat egiteko. Uztaileko erakusketa, irailean antolatuko duen beste erakusketa handiago baten aurrerapena izango da, formato txikikoa.

Aukera ederra pintura eta arte garaikidea bertatik bertara ezagutu eta komentatzeko.

Ibilbide luzea

Alberto Ramirezek ibilbide luzea egin du margolari moduan, ehunka koadro ditu marraztuak hainbat garaitako maisu bangoardisten lanetan inspiratuak: Velazquez, Degas, Delacroix...

Picassorena, ibilbide horretan egindako "episodio bat" izango da.

Bertso saioa SORALUZEN

Uztailak 25
Santiago egunean

19:00etan
Goiko frontoian

Sarrerak

Aurrez 5€
IRATXO GOXODENDAN
UZTAILAREN 1ETIK 24RA

Bertan 5€

Oharra

Euria bada, saioa antzokian egingo da

BERTSOLARIAK



Maialen Lujanbio



Amets Arzallus



Aitor Mendiluze



Miren Amuriza

Gai email: **Amaia Agirre**

ANTOLATZAILEAK



SORALUZeko
UDALA
Kultura Batzordea



PUBLIZITATEA

Jatearen plazerna, bertatik bertara



Batzoki
RESTAURANT

eguziko menua
aizkorazuzaki
karta eta menuak

opiatarrak eta
hamburgerak
entzago bereziak

Basila eta
lugar arrak
bestakak

Errezak: 943 75 20 55

Hortz klinika

Errabai 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.500

Katia Gustin
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologia, grotetik,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika...

Zerbitzu radiologiko orokorra (RCO):
ekianerria, orto eta tele.



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure gureko hortz klinika,
puntu puntako teknologiatan lan
egiten dugu. Cad Cam sistema
bertatik bertara erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behea
SORIALUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:
Astelenezetik ostiralera
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

KLB6

Kalebarren 6
943 67 21 26
Muller-erregimen
moduluetan



BSB *Papa Joana*
VERO MODA

ISOLID
BONICHE

new balance

BOLIA



TARLARA

Piribok, arsak,
kombinatuak
Gazte-giroko festa



IZKGUIRRE
Igeltzeritza



Eraikin berriak • Kalitatezko enaltza
Erreforma • Era gutxiatoko igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 940 867 299

Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, aljarpenak • Administrazio lanak
Trafiakio burokratia • Lan-erlako aholkularitza
Erresen kontuzio/dibulzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. esk. 20590 Sorluze
Tel: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelenezetik
ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15



Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

Txoko

Eguziko menua,
plater kombinatuak,
hamburgerak,
egitarlekueak,
radiak,
pizzaak,
gosiak...

Erkarpeak agian dira
Tel. 943 75 17 89



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelenezetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak 08:30-13:30
Igandeak 08:30-14:30



Gosariak, ogia,
prentsa, pisirikak,
bestakak...
Ezerra eramateko
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

Carpinteria
MANU
Aroztegia

Ateak
Bestakak
Pegatuak
Sufaldeak
Tatuak

Manuel Cituentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



FOGASLER
ITURGINITZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



KM design

Kira, Muntatzen

941 76 99 85

kirumuntatzen@yahoo.es
www.komdesign.es

Pof. Amalagoa 5
BERGARA

- Disenatu eta Fabrikazio lanak
- Sufaldeak
- Hornitu-eremuak
- Logelak
- Zoruak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

ARRANO
taberna

Etan eta gozatu
etxeko pintxoak




Etibaruetan 5
Telefonoa: 943 75 24 09

Euskalzaletasunaren alde:



Aupa Gu! markaren erakusleiho berria



Apirilean, Aupa Gu! markak erakusleiho berria zabaldu zuen, Aupagu.eus online denda. "Harrera oso positiboa" izan du atari berriak, hasieran, salmenta askorekin, Lorea de Castro Lete egilearen esanetan.

Jantziak, serigrafia...

Nabigatzeko "erraza" eta "intuitiboa" da Aupagu.eus. Estetikoki markak berezkoak dituen kolore zuria, grisa eta fuchsia ditu oinarri. Eskaintzari dagokionez, berriz, helduen eta umeen jantziak eta osagarriak dira produktu nagusiak. Halaber, eskaintzek eta produktu berriek atal bereziak dituzte, baita taldeentzako enkarguek zein serigrafia lanek ere: "Lehendik ere egiten nituen taldeendako enkarguak: errugbi taldearendako, Pil-pileanendako, Marraskilo tourrerako, dantza taldearendako... Aukera dago logo edo marrazki bat aukeratu

eta kamiseta kopuru handia eskatzeko, eta hori ere badu online saltokiak. Bestalde, egurrean serigrafia ere egiten dut, urteurren bat dela, edo omenaldi bat dela... opari elegantea eta polita da. Halako enkarguak ere egin daitezke", esplikatu du Lorea de Castrok.

Online eta azoka fisikoetan

Konfinamenduak eman dio azken bultzada Aupagu.eus atariari, baina ideia mamituta zetorren: "Iaztik erdi bukatuta neukan. Orain ikusi dut bukatzeko aukera, denbora izan dudalako eta artisau azoka fisikoak bertan behera geratu direnez, neukan materialari irteera emateko".

Hori bai, online saltokia izan arren, Aupa Gu marka azoka fisikoetara bueltatuko da: "Bezeroarekin eta beste artisauarekin harreman zuzena izatea pribilegioa da".

1. Lorea de Castro iaz, Euskal Jai eguneko saltokian.
2. Ordenagailuko pantailan Aupa Gu! markaren saltoki berria.
3. Lorea de Castro Aupa Gu! markak parte hartu zuen lehen Gaztañerre Azokan.
4. 2017ko Gaztañerre Azokan.

Harremanetarako

680 53 97 76.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Ibai Soriano Sebal
Ekainak 27an urte bat. Zorionak Ibaixko! Urtebete egin dozu gure artian, eder hori! Familia guztian partetik.



Oihane Sanchez Martin
Uztailak 9an 35 urte. Zorionak amatxo!!! Jarraitxu beti bezain alai !! Muxu pillo bat etxeko guztion partez!!



Jaime Aristi Artolazabal
Ekainak 28an 81 urte. Zorionak aiaitxa!!! Patxo pillo bat etxeko danon partez baiña batez be Julenen partetik!!



Carla Amutxastegi
Ekainak 4an, 7 urte. Zorionak eta muxu haundi bat danon partez!


JAIOBERRIAK



Raida Yachou Houllich
Ekainaren 2an jaio zen



Haizea Heriz Gerrikagoitia
Ekainaren 18an jaio zen



Paule eta Lide
Ekainaren 25ean 5 urte eta uztailearen 1ean 10 urte. Zorionak pareja! Ondo ospatu zuen eguna eta besarkada potolo bat etxeko danon partetik!



Axier eta Paule Oñederra
Ekainaren 25ean 14 eta 5 urte. Zorionak bikote! Ondo ospatu eguna

Zorion agurrak argitaratzeko jarraibideak

Aurrerantzean, Pil-pilean aldizkarian zorion agurrak argitaratzeko bidea ondorengoa izango da: plaentxia.eus/zorionagurrak helbidean sartu agurra eta argazkia. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hileko azken barikuan aldizkarian.

ESKELAK

ESKELA	
Toli Gomez Pintado	
2020ko martxoaren 16an hil zen, 74 urte zituela.	
Bere omenezko meza uztailearen 4an egingo da, arratsaldeko 19:00etan.	
<i>Zaila da onartzea ez zaitugula berriz ikusiko, baina bizi garen artean beti izango zaitugu gogoan.</i>	
Semeak eta senideak.	


HILDAKO ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Juan Carlos Vila Azkarate
Rosario Alberdi Urizar
Maria Aranzazu Alberdi Bernardo
Lander Lacuesta Gorosabel
Javier Mendizabal Oregi

Jaiotakoak

Raida Yachou Houllich
Haizea Heriz Gerrikagoitia

A portrait of an elderly man with white hair, wearing a light blue shirt and a grey sweater, against a blue background. Two large white quotation marks are overlaid on the image, framing the text.

**“Ikasi dut gure
adinekoak
zaintzea
inoiz baino
beharrezkoagoa
dela”.**

José Luis Elosua
NAGUSILAN

Adinekoak. Gure
adinekoak inoiz ez dira
gaur bezain ‘gureak’ izan.
Eta zaindu egin ditugu,
ahaztu gabe gure
gizartearentzat zer esanahi
daukaten. Eta beti
pentsatuz egunen batean
gu beraiek izango garela.

#AurreraEgitekoGogoratu

Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAZ
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAZ

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUZAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
O KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK
ERAKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

- Sukalitatea - Sukalitatea - Sukalitatea -

TXURRUKA Jatetxea



--- ORDUTEGI BERRIA ---

astel. astear. ITXIA
asteaz- ostri. 12:30-15:30 MENU BEHEZIA 18,50 €/KARTA
zapt. igand. jai. 13:30-15:30 MENU BEHEZIA 30,00 €/KARTA
ost gau. zapt gau. 20:45-22:15 MENU BEHEZIA 30,00 €/KARTA

*ost eta zapt. 18:00ak arte hartzen ditugu afari erreserbak

*gutxienez 15 erreserba behar ditugu jatetxea zabaltzeko

Herriko fest. Eguberri. MENU BEHEZIA 40,00 €/KARTA

GAZTELUPE taberna

Astelehenetik ostiralera EROATEKO eta
BERTAN jateko MENUA

Ostri gau. zapt. igand. jai.
OGIGARNEKO/OGITARTEKO/PLATERTXIKI/HANBURG

Txurruka - Sukalitatea - Gaztelupe 943751581 / 654206420